



Nazioarteko Rallystone Rallyaren IV. Edizioak 1.100 km egingo ditu guztira. Horietatik, 600 km 27 erregulartasun-tartetatik egingo dira

Bilbao Kirolak erakundeak antolatutako ekitaldi honetan 75 parte-hartzaile arituko dira, tartean belgikarrak eta frantziarrak

Edizio honetan, Blunik kronometraje-sistema mantenduko da. Sistema horrek infragorrien bidez funtzionatzen du, eta, gaur egun, hori da teknologikoki sistemarik aurreratuena, kronometraje posible guztien artean

'Lasterketetako' sei Auto Klasikoren erakusketa Abandoko Vialia Geltokian, apirilaren 17ra arte

Bilbon, 2009ko apirilaren 15ean.- Gaur goizean, Abandoko Indalecio Prieto Geltokian, Nazioarteko IV. Rallystone Rallya aurkeztu da. Apirilaren 17, 18 eta 19an egingo da, eta, bertan, 75 auto klasikok hartuko dute parte. Rallystone 2009 probaren zuzendaria eta Automobilismoko Euskal Federazioko presidente ohia den **Manolo Villaverde** eta Enplegu, Gazteria eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkaria eta Bilbao Kirolak erakundearen presidentea den **Jon Sustatxa** egon dira prentsaurrekoan.

Parte-hartzaileen datuek ondo erakusten dute Bilbao Kirolak erakundeak babestutako lasterketa hau egonkortzen ari dela zaleen artean; izan ere, aurtengoarekin, laugarren edizioa egingo da. 2006. urtean, 70 talde aritu ziren; 2007an, 85; 2008an, 100; eta, aurten, 75 parte-hartzailek eman dute izena.

Edizio honetan, iaz ere egin zen bezala, Blunik kronometraje-sistema erabiliko da. Infragorrien bitartez funtzionatzen du, eta, gaur egun, hori da teknologikoki aurreratuen dagoen kronometraje-sistema. Hori horrela, ibilgailu bakoitzak sistema bat eramango du, zeinen bitartez, puntu zehatz batzuen aurretik pasatzean, denbora jasota geratuko baita. Datu hori sistema informatiko batera bidaliko da, eta, horrela, sailkapena osatuz joango da. Berrikuntza hori aplikatu arren, segundokako kronometraje-sistema ere erabiltzen jarraituko da.

Berriz ere nazioartekoa

Aurreko urteotako arrakasta ikusita, eta lasterketa hau egin eta antolatzeko unean FIVArekin (Antzinako Ibilgailuen Nazioarteko Federazioa) araudia bete zela egiaztatu ostean, 2008an, aipatutako erakundeak NAZIOARTEKO gisa katalogatu zuen Rallya, eta aurten berriz ere lortu du kategoria hori. Mundu osoan 56 proba egingo dira maila horretan, eta hau izango da Espainiako Estatuan egingo den bakarra. Modu horretan, Montecarlo eta Atenasekin batera, Bilbao eta bertako Rallya erreferentzia izango dira Europan, espezialitate horretako probarik onenetako baten gisa. Nazioarteko mailan egingo duen bigarren edizioan, parte-hartzaileen %15 atzerritarrak izango dira; hain zuzen ere, Frantziakoak eta Andorrakoak. Gainera, Euskadiko, Kataluniako, Galiziako, Madrilgo, Kantabriako, Leongo eta Kanarietako taldeak ere egongo dira.

Lasterketa Nazioarteko gisa katalogatu izanak izen ona ematen die antolatzaileei. Ospe hori mundu osoan baloratzen da, eta, era berean, horrek egitura eta antolakuntza maila bera mantentzera derrigortzen gaitu, Erregularitasun Historikoko Rallyen elite honetan jarraitu ahal izateko. FIVAKo ikuskatzaileek den-dena aztertzen dute, ekitaldiaren garapena gainbegiratzuz eta nazioarteko arauak betetzen ote diren aztertuz.

Bilbao, gune nagusi

Aurtengo rallyko etapa guztiak Bilbotik irten eta bertan amaituko dira, eta, guztira, lasterketaren hiru egunetan 1.100 kilometro beteko dira, eta, gutxi

gorabehera, erregulartasun garbiko 600 kilometro egingo dira. Ibilbidean zehar, parte-hartzaileak Araban, Gipuzkoan, Kantabrian eta Burgosen ere sartuko dira.

25 urte baino gehiago dituzten auto klasikoen Rallya da. FIVAREN (Antzinako Ibilgailuen Nazioarteko Federazioa) araudia betez, ibili beharreko tarteetan, autoek ezin izango dute 50 km/h gainditu. Tarteetan, segundoz segundo kontrolatzen den erregulartasuna bete behar da. Hori oso zaila da, kontrolak sekretuak direlako eta parte-hartzaileek batez besteko abiadura mantendu behar dutelako beti, tarte guztietan.

Rally mota hauetan taldearen autokontrola saritzen da; izan ere, parte hartzen duten ibilgailuek duela 30 urteko prestazio berberak dituzte, eta kontuan hartu behar da garai hartan abiadurako rallyetan erabiltzen zirela eta ezarritako batez besteko abiadurak nabarmen gainditu ditzaketela gaur egun ere. Inskribatutako ibilgailuen artean, auto mitikoak daude: Alfa Romeo GTV eta GIULIA, BMW 2002, Fiat 124 Spider Abarth, Ford Escort MKI, Lancia Beta eta Fulvia, Mercedes 450, Mini, Porsche 911, Seat 124 FL eta Sport, besteak beste.

Sei Auto Klasikoren erakusketa Abandoko Vialia Geltokian, apirilaren 14tik 17ra bitartean

Apirilaren 17ra bitartean, "lasterketetako" sei auto klasiko egongo dira ikusgai Abandoko Vialia Geltokiko bi atarteetan (nasak eta solairu nagusia). Auto horiek Real Peña Motorista de Vizcaya (RPMV) elkarteak laga ditu, eta, motorraren munduko harribitxi apartak izateaz gain, historiako Rallyrik garrantzitsuenetako ale bakanak ere badira. Aldi berean, egun horietan bertan, Bilboko Abandoko Indalecio Prieto Geltokiko Erakusketa Aretoan, motorraren munduarekin erlazionatutako pieza bilduma ezin interesgarriagoa jarriko da ikusgai.

Besteak beste, Renault Alpine 1600 Gordini bat ikusi ahal izango da. Ibilgailu hori 1976ko Firestone Rallyko plakekin dago apainduta, eta, gaur egun, mota horretako ale gutxi geratzen dira "bizirik". Fernando Calleja margolari bilbotarrak laga du (gainera, Callejak zenbait argazki eta koadroren bitartez ere hartu du parte erakusketa honetan), eta, RPMVko bazkideen arabera, Alpineak gaur

egungo piezarik exotikoenetakoa da. Era berean, Alberto Lertxundiren jabetzako Fiat 1000-Abarth bat egungo da ikusgai. Auto hori eredugarria da zaharberitutako ibilgailuen artean.

Ikusi ahal izango den beste autoetako bat 1969ko Lancia Fulvia HF1600 bat da, Miguel Barrachinaren jabetzakoa. Datu bitxi gisa, esan beharra dago auto honek Montecarloko Historikoen Rallyko zenbait ediziotan hartu zuela parte, lehenengo hiruren artean sailkatuz.

Erakusketan, Ignacio Visoren 1970eko BMW 2002 Ti bat ikusi ahal izango da, bai eta beste zenbait auto ere, denak ere garai hartako rallyetako kirol-modeloak; esate baterako, Fiat x1/9 edo Renault Gordini. Bilboko Abandoko Indalecio Prieto Geltokiko atartean ikusgai egungo diren autoak oso ondo kontserbatuta daude, eta balio historiko handia dute.

Rallyaren garapena

Ordutegi hauek jarraituko dira:

2009ko apirilaren 17a. OSTIRALA

09:00. Egiatzapen administratibo eta teknikoak BILBON.

13:00. BILBOKO Irteerako Parkean agertzeko azken ordua.

17:00. Lehenengo parte-hartzailearen irteera BILBOTIK.

21:00. Neutralizazioa GERNIKAN.

23:00. Neutralizazioaren irteera.

2009ko apirilaren 18a. LARUNBATA

02:30. Lehenengo parte-hartzailea BILBORA helduko da.

11:30. Lehenengo parte-hartzailearen irteera BILBOTIK.

13:30. Hirugarren atalaren amaierako neutralizazioa GASTEIZEN.

16:00. Lehenengo parte-hartzailearen irteera GASTEIZKO neutralizaziotik.

21:00. Neutralizazioa ZEANURIN.

23:00. Lehenengo parte-hartzailearen irteera neutralizaziotik.

2009ko apirilaren 19a. IGANDEA

02:00. Lehenengo parte-hartzailea BILBORA helduko da.

11:00. Lehenengo parte-hartzailearen irteera BILBOTIK.

13:00. Lehenengo parte-hartzailea BILBORA helduko da.

15:00. Sari-banaketa BILBON (Sheraton Hotela).

Oharra: Egitarauan adierazitako orduak gutxi gorabeherakoak dira. Behin betiko ordutegiak dagokion Eranskinean argitaratuko dira.

Tradizio luzeko lasterketa baten berragerpena

Hamar urtez anonimatuan egon ostean, lasterketa 2006an agertu zen berriro, Real Peña Motorista Vizcaya elkartearen eskutik eta 70 parte-hartzailerekin. Lasterketa, 2007an, kontzeptuari eta garapenari zegokienez, oso antzekoa izan zen, baina hobekuntza gehiago sartu ziren. Ondorioz, talde gehiagok eman zuten izena; guztira, 94k. Egoera klimatologikoa eta gauez egin beharreko tarteen diseinua zela eta, lasterketa Estatuko gogor eta zailenetakoa izan zen; izan ere, izena emandako 94 taldeetatik, 56k baino ez zuten lasterketa amaitu.

Automobilismoko proba hau duela 30 urte baino gehiago hasi zen egiten, eta, bertan, mundu mailako marka garrantzitsuak ere lehiatu izan ziren. 1952an, lehenengo Bilbao Firestone Rallytzat har daitekeen proba egin zen Bilbon. Aipatutako lasterketaren hastapena izan zen; izan ere, 60ko hamarkadan, Burgosko Firestone fabrika inauguratu zenean, Espainiako Automobil Klubak lehenengo Firestone Rallya antolatu zuen.

60ko hamarkadaren amaieran, Real Peña Motorista Vizcaya elkarteak arduratu zen automobilismoko proba hori antolatzeaz, eta, bertan, 66 ibilgailuk eman zuten izena. Horietatik, 46 irten ziren, eta 27 baino ez ziren helmugara heldu, ibilbidea oso gogorra izan zen eta. Urte hartatik aurrera, eta 80ko hamarkadaren hasierara arte, Firestone izan zen babesle ofiziala. Hasiera-hasieratik, Espainiako Txapelketarako puntuagarria izan zen. Hain zuzen ere,

Rallyaren 16 edizio egin ziren. 12 aldiz, lasterketa Bilbotik irten zen, eta ibilbiderik erabiliena Bilbao-Castro Urdiales-Santander-Bilbao izan zen.